


⚡ Parte-hartzea eta kudeaketa Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua egitean

Goian aipatutako faseek hezkuntza-komunitateko hainbat kideren parte-hartzea eskatzen dute. Kide horiek zeregin eta ardura hauek izango dituzte:

- Ikastetxeko zuzendaritzari dagokio honako hauek egitea: proiektua bultzatzea, Hizkuntza Proiektuaren batzordeari lan-plana idazten, egituratzen eta kudeatzen laguntzea, eta hezkuntza-komunitateari proiektuaren berri ematea.
- Koordinatzaileari dagokio lan-plana diseinatzea eta bultzatzea (jarduerak proposatu, emaitzak jaso eta aztertu, dokumentua idatzi, dokumentuaren irakurketa eta onarpena gidatu...).
- Hizkuntza Proiektuaren batzordeari dagokio dokumentua idaztea eta berrikustea, eta, batez ere, ziklo eta departamentuetako lana eta erabakiak hartzeko prozesua dinamizatzea.
- Klaustroari dagokio, lan-taldetan antolatuta, batzordeak proposatutako erabakiak eztabaidatzea, adostea eta, norberari dagozkion alderdietan, haiek betetzea.
- Hezkuntza-komunitateak iritzia emango du prozesu osoan zehar.

Azpiko grafikoak erakusten du Hizkuntza Proiektuaren garapenean parte hartzen duten eragileen, norbanakoen zein taldekoen, arteko interakzioa eta erlazioa.



1. jarduera. Lan-taldea, zertarako? Zeintzuk dira haren ardurak?

1. Mintegian parte hartu.
2. Lan-plana egokitu eta onartu.
3. Koordinatzaileari lagundu HP idazten.
4. Azpitaldeen erabakiak, HP batzordeak egokitu ostean, onartu eta Eskola Kontseilura eraman.
5. Lana bultzatu dagokion mintegian edo zikloan.
6. Lan plana diseinatu.
7. Klaustroan hartutako erabakiak eztabaidatu, moldatu eta onartu.
8. Hainbat erabaki aurrera eramaten parte hartu.
9. Lana bultzatu (jarduerak proposatu, emaitzak bildu eta aztertu, HPri forma eman...).
10. Azpitaldeen emaitzak egokitu eta batzordean eztabaidatu eta adostu.

Zeintzuk dira batzordekideen zereginak?	
Koordinatzailea	Lan-plana diseinatu Lana bultzatu (jarduerak proposatu, emaitzak bildu eta aztertu, HPri forma eman...)
Zuzendaritza	Koordinatzaileari lagundu HP idazten Lan-plana diseinatu Lana bultzatu dagokion mintegian edo zikloa
Batzordekideak	Mintegian parte hartu Lan-plana egokitu eta onartu Koordinatzaileari lagundu HP idazten Lana bultzatu dagokion mintegian edo zikloan Azpitaldeen emaitzak egokitu eta batzordean eztabaidatu eta adostu
Klaustrokideak	Azpitaldeen erabakiak, HP batzordeak egokitu ostean, onartu eta Eskola Kontseilura eraman Hainbat erabaki aurrera eramaten parte hartu
Hezkuntza Komunitatea	Klaustroan hartutako erabakiak eztabaidatu, moldatu eta onartu